

SE SENTIR BIEN DANS SA VILLE GURE HIRIAN ONGI SENTITU SENTÍ'S PLAN DENS LA SOA VILA



Une ville plus agréable à vivre, plus verte
et plus solidaire, dans tous les quartiers.

Nork bere etxearen ondoan natura eremu publikoa ukaitea izanen da heldu diren urteetako xedea. Haren herritarren zahartzeari egokituz haur baten goratasunetik bizitzen ahalko den batena izanen da ere. Herritar guzien alde garatuko ditugu xede hauek, auzotegi guzietan hedatu hiri eta jendarte eredu baten bidez, eta ez bakarrik hiper-zentroan, elkarrekin hobeki bizitzeko, osasun hobean bizitzeko, auzotegian eta hirian ongi sentitzeko.

Jadanik dagoen natura zaintzearekin hasten da begetalizazio hau. Horretarako hiria bere gainean berean berriz egin behar dugu, natura edo laborantzako eremu berriak kontsumitu gabe, jadanik eraikiak diren eremuak molde arrazoidunagoan erabiliz. Jadanik dauden auzotegietan hobeki jendarteraturik izanez herritarren bizia hobetzen duen zentzuzko izariko proiektuei lehentasuna emanez.

Hiriaren kultura eta hizkuntz aniztasuna gehiago islatu behar da bere auzotegi guzietan (seinaletikan bereziki). Lortu duen « arte eta historia » labela agertu behar da auzotegi guzietan (hiri eta natura ondarea).

Gure proposamenak:

a. Glain guneko hirigintza erreberritzea

Gaur egun ekipamendu zaharkituez eta aparkaleku eremu handiez osaturik, jadanik artifizializatua den eremu batean hirigintza erreberrituaren eredia bilakarazi nahi dugu Glain gunea. Auzotegi mistoa, biztanleen beharrei hobekien erantzunen diena, etxebizitzak, lan eremuak, saltegiak, zerbitzuak integratuz eta eremu publiko begetalizatuak hedatuz.

- Chala Lana-n aurreikusitako diren etxebizitzak (355 inguru) bederen eraiki, seniorrentzat besteak beste.
- Aparkatzea silo motako aparkaleku publiko gisa atxiki.
- Errobi bazterrak haien loturekin antolatu.
- Jadanik dauden saltegi eta zerbitzu proiektuak integratu.
- Gunearen erabilpenak aniztu: hurbileko saltegiak, jarduera aretoak, zerbitzuak, heren-lekuak...
- Tren geldileku bat sortu
- Ikasle bizi gun bat sortu Errobiko kanpusean.

b. Herriko parke naturala Lana eremuan

Ansoteko ordokiaren gainaldean aitzinaturik dagoen natura eremu zabal horretan, 300 bizitegi berri eraikitzeako artifizializazio proiektua sortzeko asmoa du karguan den herriko kontseiluak. Hau, Prissé-ko operazioko 350 etxebizitzaren parean eta biziki jendeztatuak diren Belharra eta Cam de Prats auzotegietatik zenbait ehunka metrotara. Honen ondorioa, egunero kasik gertatzen den Duvergier de Hauranne etorbidearen kongestioa dugu. Etxe proiektu hau geldituko dugu nahasmendu klimatikoari aurre egiteko estrategikoa den eremu naturala babesteko eta Errobi eta Aturri arteko jarraikitasun ekologikoak azkartzeko. Ingurumen eta jendarte xede sinbolikoko herriko parkea sortuko dugu bertan. Burutu daitezkeen antolamenduen artean:

- Ibilaldi lekua auzotegiko biztanle eta baionar guzientzat.
- Haurrentzat eta haurrekin sortu joko eta baloi eremuak.
- Familia baratzeak hazkurri sendoa ekoizteko
- Aturri eta Errobi artean bioaniztasunaren aldeko jarraikitasun ekologikoak sendotu.
- Osasun/kirol ibilbidea garatu.
- Emmaus Bidean heren lekua parkeko bizi leku gisa egonkortu
- Dantza ostatu bat

c. Natura hirian defenditu

Hiriko Natura, Laborantza eta Oihan (NLO) eremuak lur funts erreserbak bezala hartuak izan dira luzaz, eta oraindik hala izaten segitzen dute. Badakigu alta gaur egun ekosistema arloan zerbitzu handiak egiten dituztela, beroketa klimatikoari dagokionez bezainbat bioaniztasuna babesteko ere. Natura hiria egotea ezinbestekoa da gure ongizatea eta gure osasunerako.

- Gutierrez, LAE-k Zero Artifizializazio garbira buruz finkatu norabidea errespetatuko dugu.
- NLO-ak leku babestuak bilakaraziko ditugu, HTP proiektuan proposatua denaz baino harago.
- Natura Eremu Minberak (Ansoteko Ordokia eta Habas-eko Oihan hezea) eta eremu hezeak babesteko neurriak azkartuko ditugu.
- Hiriko natura eta oihan ondarea bere arkitektura ondarearen heinean balioan ezarriko dugu.

d. Eremu publikoak 3A-n: Erakutsi, Lasaitu, Animatu

Baionako eremu publikoak garatzeko dugun xedea nahitaez lotua da eremu publikoen partekatze berri baten begetalizazio ekimen batekin, auzotegietan oinezko eta bizikleta bideak garatzeko. Baina usu antolamendu bat gogoetatzerakoan usu ahanzten diren haurrei leku handia eskainiko die, haien goratasunari egokia den hiria eraikitzeke eta, honela, bakoitzari, izan ttipi edo handi, eremu publikoan aske, segurtasun osoan sentitzea ahalbidetzeko. Azkenik, adineko edo mugikortasun urriko pertsonak segurtasun handienarekin ibiltzen ahalko dira (ibilbideen jarraikitasuna, espaloien zabalera, aulkiak).

- Karrika gurea da: erabiltzaileen eta joan-etorri aktiboak azkartu antolaketetan.

- Atariko ibilketetan bermatu (adineko pertsonekin, emazteekin, MUP-ekin...) eremu publikoetako antolamenduen erosotasuna eta seguritatea hobetzeko
- Ikastetxeen inguruak segurtatu eta lasaitu.
- Ibilbide koloreztatuak sortu goratasuneko higigarriekin auzotegietan.
- Euskara eta gaskoiaren presentzia azkartu seinaletikan
- Joko eremu batzuk estali urte osoan erabilgarriak izan daitezen, Hego Euskal Herrian egiten den bezala.
- Berotasun guneak murriztu zuhaitz berriak kopuru handian landatuz.
- Babesguneak aurreikusi gerta daitezkeen berotasun aldi azkarrei erantzuteko.
- Uraren zikloa errazten duen desirazgaizte plana plantan ezarri.
- Herritarrek begetalizatzeko baimena sustatu eta garatu.
- Roland Barthes zabalgunea zaharberritu.

e. Arrisku klimatikoei aitzina hartu eta egokitu

Gora doazen arrisku egoeran, herritarrak eta hiriko eragile desberdinak, arriskuaren kultura bateratu bat eraikitzeko ekimen kolektiboaren inguruan biltzean datza erronka.

- Biztanleak eta eragile publiko/pribatuak sentsibilizatu eta formatu tokiko arriskuei lotu erronka desberdinez eta krisi bat gertatzerakoan indibidualki eta kolektiboki erabili beharreko praktika egokiez jabetu daitezen (kartografia kolektiboa, besta giroko animazioak arriskuen inguruan)
- Asuragarritasuna: Geroan gerta daitezkeen kalteen aurre egiteko, hiria eta Baionarren asuratzeko zailtasunak aitzinetik ikusteko erne egonen gara arriskuen apaltzeko politika aktiboa erakutsiz beharrezkoak diren tresnak, inbestizamenduak et dirua mobilizatuz eta prebentzio planak erregularoki eguneratuz.

f. Denbora antolatu eta espazioa artarekin tratatu Denboraren Bulegoari esker

Baliabideen eskastearen aurrean, komeni da jadanik dauden eraikin eta eremuak erabiltzeko aukerak lehentasunez aztertzea, eraikin berriak altxatzea baino. Horretarako, ondokoaz arduratuko den Denboren Bulego bat plantan ezarriko dugu:

- Herriko ondareaz diagnostikoa egin: honen ezaugarriak, egoera, erabilpen tasa eta intentsifikazio potentzialak (aretoak elkarrean esku uzteko adibidez). Unibertsitateko aretoak erabili.
- Eskoletako korrale begetalizatuak publikoari asteburuetan eta oporren garaian ireki.
- "Eskola karrika" bat ireki: irekitze eta hesteko tenoreetan, karrikak aldi baterako oinezkoak bilakatu, autoen zirkulazioari hetsiz, haurrei leku bat eskaintzeko hirian.
- Pédi'Busak sostengatu.

Eskola / bulego / garraio publikoetako ordutegiak landu, metaketa arintzeko puntako orenetan.